

Komunikabideek atzera egin dute orri bisitatuenean artean 2012ko aldi beraren aldean, Euskal AEn

Posta elektronikoaren orriak lehen postuetan ditugu. "hotmail.com" aurrena eta "gmail.com" bosgarren 2013an

Komunikabide gehienek atzera egin dute Euskal AEko orri bisitatuenean rankinean 2012ko aldi beraren aldean, 2013ko Eustaten datuen arabera. Komunikabide aipatuena: "elcorreodigital.com" (%8,6), "diariovasco.com" %4,7, "marca.es" %4,0, "elpais.com" %2,5, "deia.es" %1,7, "gara.net" %1,3.

Euskal AEn normalean Interneten aritzen diren pertsonak aurrena posta elektronikoaren plataformetara jotzen dute, ondoren gizarte sareetara, komunikabideetara, instituzioen orrietara, bankuetara, aisiara.

Web orri bisitatuena "hotmail.com" da; Internet erabiltzaileen artean %10ek jotzen dute bertara, 329.300 aipamen guztira. Rankinean bigarren, 2012ko postu berean, "facebook.com" gizarte-sarea, 299.200 bisita, %9,1. "elcorreodigital.com", 2012ko liderra, orain hirugarren da, 282.300 aipamen, %8,6.

Aipatzekoa da laugarren sendo dagoela "youtube.com", 212.700 aipamen, %6,5. "whatsapp.com" lehen ez zen aipatu ere egiten, orain 27. dago.

Enplegu arloko atariak sendotu egin dira: "lanbide.net" %2,1, "infojob.com" %1,5.

Banku elektronikoek eta erakunde-orriek beren postuei eusten diete, web bisitatuenean artean, 2013an

Eusko Jaurlaritzaren orria, "euskadi.net", aipamenean %2,1, 69.800 bisita, hamabigarren da rankinean. Aipatzekoa da lehen 50 postuetan nola sendotu diren Euskal Administrazioarekin erlazionatutako orriak, esaterako, "ehu.es" eta "osakidetza.euskadi.net".

Orri bisitatuenean artean bankuek bezeroei eskainitakoak daude: "kutxabank.es", bisiten %2, hamalaugarren da eta "cajalaboral.es" %0,5.

Euskadiko Internet erabiltzaileen artean ia %98k "Google" bilatzailea erabiltzen du

Google da Euskal AEko Internet erabiltzaileen bilatzaile kutuna; gainerakoak bazterrera bultzatu ditu. Kolektibo honen %97,9k, 15 urte eta gehiagoko 1.235.000 internautak baino gehiagok, Google dute erreferentzia; %1,3k Yahoo eta %0,8k besteren bat.

Internet erabiltzaileek gehien aipatu dituzten 20 weben zerrenda. 2012 eta 2013 (milaka)

2012ko sailkapena	2013ko sailkapena		2013ko aipamen kp.
		Total	3.280,3
3	1	HOTMAIL.COM	329,3
2	2	FACEBOOK.COM	299,2
1	3	ELCORREODIGITAL.COM	282,3
8	4	YOUTUBE.COM	212,7
9	5	GMAIL.COM	203,1
4	6	DIARIOVASCO.COM	153,8
6	7	MARCA.ES	131,0
12	8	GOOGLE.COM	90,7
5	9	TUENTI.COM	88,7
10	10	ELPAIS.COM	80,7
11	11	LANBIDE.NET	70,0
15	12	EUSKADI.NET	69,8
40	13	TWITTER.COM	69,6
7	14	KUTXABANK.ES	65,1
14	15	WIKIPEDIA.ORG	59,6
17	16	YAHOO.COM	56,5
18	17	DEIA.ES	55,3
16	18	INFOJOB.COM	48,0
13	19	GARA.NET	43,6
19	20	ELMUNDO.ES	34,8

Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta / Euskal Aeko familiak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta familiei- datu bankua